

DEIALDIA, GIZARTE HEZITZAILEAREN 4 PLAZA OPOSIZIO BIDEZ BETETZEKO, IRUÑEKO UDALAREN ETA HAREN ERAKUNDE AUTONOMOEN ZERBITZURA ARITZEKO. IZENDAPENA

Tokiko Gobernu Batzarrak 2026ko martxoaren 2an egindako bilkuran honako erabaki hau hartu zuen:

Behin Iruñeko Udalaren eta haren erakunde autonomoen zerbitzura aritzeko gizarte-hezitzailearen 4 plaza oposizio bidez betetzeko hautapen-prozesua amaiturik, bat etorriz hala 2025eko apirilaren 14ko erabakiaren bidez Tokiko Gobernu Batzarrak onetsitako deialdiarekin nola hautaketa-epaimahaiak emandako izendapen-proposamenarekin, eta behin eskatutako agiriak aurkeztuta, eta bete dadin Nafarroako Administrazio Publikoetan sartzeko Erregelamendua onesten duen 113/1985 Foru Dekretuaren 32. artikuluan ezarritakoa, hau ERABAKITZEN DA:

1. Gizarte-hezitzailearen lanposturako izendatzea jarraian zerrendatzen diren pertsonak, eta Gizarte Ekintzako Alorrari atxikitako plaza hauek esleitzea:

IZANGAIA	ESLEITUTAKO PLAZA
LORENA LÓPEZ MARTÍNEZ	1-214000-20
MAIALEN IZCO BERRAONDO	1-214000-13
VIRGINIA PÉREZ-ZABALZA LARUMBE	1-214000-9
LOREA IRIGOYEN ARBIZU	1-214000-23

2. Agintzea izendatutako izangaiek 2026ko martxoaren 20an hartu beharko dutela plazen jabetza.
3. Agintzea Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta Iruñeko Udalaren webgunean (www.pamplona.es/eu) argitaratu dadila.

Erabaki honen aurka honako errekurtsio hauekiko bat paratzen ahal da, aukeran:

- BERRAZTERTZEKO errekurtsioa, egintza gauzatu duen organoari zuzendua, HILABETEKO epean, ebazpen hau Iruñeko Udalaren webgunean argitaratu eta biharamunetik aitzina.
- GORA JOTZEKO errekurtsioa, Nafarroako Administrazio Auzitegiari zuzendua, HILABETEKO epean, ebazpen hau Iruñeko Udalaren webgunean argitaratu eta hortik aitzina.
- ADMINISTRAZIOAREKIKO AUZI-errekurtsioa, Administrazioarekiko Auzien Epaitegiari zuzendua, BI HILABETEKO epean, ebazpen hau Iruñeko Udalaren webgunean argitaratu eta biharamunetik aitzina.

Iruñean, 2026ko martxoaren 2an.- Tokiko Gobernu Batzarreko idazkaria, Garbiñe Bueno Zabalza.